



TOLOSAKO
UDALA

Giza Baliabideetako Sailean aldi baterako programa bat aurrera eramateko bitarteko funtzionario bat hautatzeko oinarriak

1. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua da bitarteko funtzionario bat hautatze Giza Baliabideetako Sailean aldi baterako programa bat aurrera eramateko. Zehazki, programaren exekuzioa lotuta dago 2018., 2019. eta 2020. urteetako enplegu-eskaintza publikoei, bai eta Udalean sortutako lanpostu hutsen ondorioz aldi baterako edo behin betiko bete behar diren gainerako deialdiei ere.

Bitarteko funtzionario hori Administrazio Orokorreko eskalan dago, kudeaketa-azpieskalan, A2 sailkapen-taldean, 20 lanpostu-mailako osagarriarekin eta urteko 16.045,12 euroko berriazko osagarriarekin.

Udalak ezarriko du urteko lanaldia, kontuan hartuta lanpostuaren izaera eta unean uneko premia bereziak.

Hautaketa-prozesua gainditu eta izendatzen ez diren izangaiek lan-poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazioaren arabera ordenatua. Tolosako Udalean finkoak ez diren langileak behar direnean erabili ahal izango da lan-poltsa hori.

2. Eginkizunak.

— Bultzatzea, izapidetzea eta gauzatze a2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietako lan-eskaintza publikoa.

— Udaleko lanpostuak aldi baterako eta behin betiko betetzeko prozesuetan parte hartzea eta horiek betearaztea.

— Deialdien oinarriak eta hautaketa-prozesuetatik eratorritako izapide eta kudeaketa guztiak egitea.

3. Parte hartzeko baldintzak.

Hautapen probetan parte hartu ahal izateko, eskaera orriak aurkezteko epea amaitu aurretik izangaiek ondorengo beharkizunak bete beharko dituzte:

- a) 16 urte beteak edukitzea eta derrigorrez erretiratzeko adina ez gainditzea.
- b) Europako Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europako Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

ESKUD6f49814-fa7c-4de2-bf4c-5f70c9726ea0



TOLOSAKO
UDALA

Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta gurasoen kontura bizi badira.

c) Unibertsitate-gradua izatea edo ingeniari teknikoaren, unibertsitate-diplomadunaren, 3. mailako lanbide-heziketaren, arkitekto teknikoaren edo baliokidearen titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea..

d) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

e) Diziplina-espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea. Atzerritarrek egiaztatu ahal izango dute ez dutela beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina-zehapenik edo zigor penalik.

f) Euskara-maila 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokidea izatea.

Bitarteko funtzionario izendatzerakoan, lanpostuaren baldintza guztiak betetzea eskatuko da

4. Eskaerak.

Lehiaketa-oposizio honetan onartua izateko eskabideak Tolosako Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio.

Izangaiek adierazi beharko dute oinarri hauetako hirugarren atalean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eredu ofizial eta normalizatua erabilia eta honako modalitate hauetakoren bat baliatuta:

- Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuta (Plaza Zaharra, 6), 07:15etik 14:15era, astelehenetik asteazkenara eta ostiraletan, eta ostegunean 07:15etik 19:00etara. Eskatzaileek beren nortasuna egiaztatu beharko dute UDATEko langileen aurrean.

- www.tolosa.eus helbide elektronikoan eskuragarri egongo den eredia beteta eta Udala honetako Erregistro Elektronikoan aurkeztuta.

- Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua.

- Era berean, eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aipatutako lekuetan aurkeztu ahal izango dira.

ESKUD6f49814-fa7c-4de2-bf4c-5f70c9726ea0



TOLOSAKO
UDALA

Eskabideak, behar bezala beteta, hamabost (15) egun balioduneko epean aurkeztuko dira, iragarkia Tolosako Udaletxeko iragarki-taulan eta bere web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5. Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren kopia.
- Deialdian eskatutako euskara-maila egiaztatzen duen euskara-tituluaren edo ziurtagiriaren kopia, halakorik izanez gero.
- Eskabidean alegatutako merezimenduen fotokopia edo jatorrizkoa:

a) Egindako zerbitzuak zein administraziotan eman diren hango funtzionario eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez (originalak edo fotokopiak) egiaztatuko dira, eta iraupena eta betetako eginkizunak zehaztu behar dira.

b) Prestakuntza osagarria dagokion organo ofizialak emandako tituluen edo ziurtagiriaren fotokopiak aurkeztuz egiaztatuko da. Jasotako prestakuntzaren edukia eta iraupena (orduak) adierazi beharko ditu.

6. Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak onartu eta argitaratuko dira Tolosako Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (www.tolosa.eus).

Zerrenda horretatik kanpo geratzen diren pertsonak hiru egun balioduneko epea izango dute, zerrenda iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, kanpo uztea eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko edo zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Behin-behineko zerrendak behin betikotzat joko dira erreklamaziorik aurkeztzen ez bada. Ebazpenean behin betiko zerrenda onartuko da, eta aurrekoa bezalaxe argitaratuko da.

7. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahaia lehendakariak, idazkariak eta alkateak edo zinegotzi delegatuak izendatutako beste hiru kidek osatuko dute. Epaimahaiko kide titularren zerrenda Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da, onartutakoan eta kanpo utzitakoan behin-behineko zerrendarekin batera.

Epaimahaiaren osaera nagusiki teknikoa izango da, eta boto-eskubidea duten kide guztiek deitutako plazetara sartzeko eskatzen den titulazio edo maila akademiko bera edo handiagoa izan beharko dute.



TOLOSAKO
UDALA

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.

Egokitzat jotzen diren probak programatzeko edo ebaluatzeko aholkulari espezialistak eduki ahal izango dira, eta aholkulari horiek beren espezialitatearen eremuan lankidetzan jardutera mugatuko dira.

Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 legearen 15.etik 18.era bitarteko artikuluen arabera jardungo du. Nolanahi ere, epaimahaikideak lehendakariaren aginduz bilduko dira eta bilera hori hautatze probak hasi baino lehenago egin behar da, behar adina denborarekin. Bilera baliagarria izan dadin, nahitaezkoa da Epaimahaiburua eta idazkaria (hala dagokionean, haien ordezkariak) eta gutxienez epaimahaikideen erdia bileran izatea

Epaimahaiak, hala badagokio, arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantzak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak ondo egiteko neurri egokiak ezarri ahal izango ditu.

Hautatutako pertsonak behin betiko kontratua sinatzeari uko egiten badio, lanpostua beteko dela ziurtatzeko, epaimahaiari zerrenda osagarri bat eskatu ahal izango zaio, proposamenaren ondoren agertzen diren izangaiekin.

Izangai batek ere ez baditu baztertzailleak diren proba guztiak gaindizen, deialdia hutsik geratuko da.

Era berean, ordenamendu juridikoarekin bat etorritz, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, deialdia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, eta oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahai kalifikatzaileak jakiten badu deialdi honetan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duen izangairen bat dagoela, organo eskudunari proposatu beharko dio, interesdunari entzun ondoren, eta izangaiek eskabidean adierazitako zehaztasun faltak edo faltasutzeak jakinarazi beharko dizkio.

8. Oposizioaldia.

Izangaiek NANA eraman beharko dute probetara, nortasuna egiaztatzeko.

— Proba teoriko-praktikoa: nahitaezkoa eta baztertzaillea.

Iratziz erantzun beharko diete deialdiko gai-zerrendarekin zerikusia duten galderei eta/edo kasu praktikoei. Epaimahaiari dagokio zenbat galdera eta/edo kasu egin behar diren zehaztea. Ariketa honi gehienez 20 puntu emango zaizkio, eta gainditzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira. Aurkeztutako izangaien kopuruaren arabera, eta epaimahaiak egokitzat jotzen badu, hautagaiak ariketaren ahozko defentsa egitea ezarri ahal izango du. Azken kasu horretan, ahozko defentsa gehienez 10 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

— Euskarako proba.

3. oinarriko f) atalean eskatzen den euskara-mailaren egiaztagiria aurkeztu ez duten izangaiek dagokion probaren bidez egiaztatu beharko dute eskatutako hizkuntza-eskakizuna. Probak egiteko eguna Tolosako Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da.



Azterketa honek ez du balio ofizialik izango 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko, eta lanpostu horretarako hautaketa-prozesuan parte hartzeko eta hautagaiak lortutako emaitzaren arabera Gai/Ez Gai gisa kalifikatzeko baino ez du balioko.

Proba hori egiteko salbuetsita geratuko dira izangai hauek: apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzeari buruzko xedapen aplikagarrian (3. hizkuntza-eskakizuna edo titulu baliokidea) aurreikusitako edozein bitartekoren bidez gainditu dutela egiaztatzen dutenak.

9. Lehiaketa.

Eskabidean adierazi eta behar bezala egiaztatu diren merezimenduak baino ez dira baloratuko. Eskabideak aurkezteko azken egunera arte egiaztatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira. Honako lan-esperientzia hau baloratuko da:

- Herri Administrazioan giza baliabideetako goi-mailako teknikariaren edo erdi-mailako teknikariaren eginkizunak betez egindako zerbitzuak: gehienez ere 0,5 puntu hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 3 puntu.

Administrazio publikoek deitutako, antolatutako eta homologatutako lanpostuen eginkizunekin zerikusia duen prestakuntza osagarria baloratuko da, gehienez 2,5 punturekin, baremo honen arabera:

- 5 eta 20 ordu arteko ikastaroak: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.

- 21 ordutik 50 ordura bitarteko ikastaroak: 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko.

- 51 ordutik 100 ordura bitarteko ikastaroak: puntu 1 ikastaro bakoitzeko.

Esperientzia egiaztatzeko, zerbitzuak eman diren enpresaren edo administrazioaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta honako hauek zehaztu beharko dira: betetzen den lanpostua, lanaldia eta kontratuaren edo izendapenaren iraupena. Administrazio publikoan egindako zerbitzuak egiaztatzeko, ziurtagiria aurkeztu beharko da (jatorrizkoa edo kopia); zerbitzuak eman diren administrazioko funtzionario eskudunak emandako ziurtagiria izan beharko da.

10. Agiriak aurkeztea.

Hautaketa-prozesua amaituta, epaimahaiak egiaztatuko du probak gainditu dituzten izangaiak badiuztela hautaketa-prozesuan parte hartzeko hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak.

Dokumenturen bat falta bada, 10 egun balioduneko epea emango da hura aurkezteko. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiak ez badu dokumentazioa aurkezten edo ez badu egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, ezin izango da lan-poltsan sartu.



TOLOSAKO
UDALA

11. Deialdiak eta jakinarazpenak.

Hautaketa-prozesuko probak egiteko deia eta Epaimahai Kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Tolosako Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuz egingo dira.

12. Gorabeherak eta inpugnazioak.

Interesdunek deialdi honen edo bere oinarrien aurka edo deialdiaren garapenaren edo epaimahaiaren jardueren ondoriozko administrazio-egintzen aurka jo ahal izango dute, urriaren 30eko 39/2015 Legea eta martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan eta bertan xedatutakoarekin bat etorritz.

GAITEGIA

1. Herri Administrazioa. Xedapen orokorrak, jarduteko printzipioak eta sektore publikoaren funtzionamendua.
2. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa. Xedapen orokorrak.
3. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa. Prozeduran interesdun direnak.
4. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa. Administrazio publikoen jarduera.
5. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa. Administrazio-egintzak.
6. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak.
7. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. Administrazio-errekurtsoak.
8. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala.
9. Administrazio-erregistroak. Epe-mugak eta epeak: zenbaketa, luzapena eta presako izapidetzea. Antolamendua. Instrukzioa: interesdunen esku-hartzea, froga eta txostenak.
10. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Herri-administrazioetako kide anitzeko organoak.
11. Tokiko Zuzenbidearen iturrien sistema. Estatuko oinarrizko araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-araubidearen arloko araudia. Sektoreko legeriak toki-araubidean duen eragina.



TOLOSAKO
UDALA

12. Udal-antolaketa. Araubide erkideko udalerriek. Beharrezko organoak: alkatea, alkateordeak, osoko bilkura, tokiko gobernu-batzarra, azterketa-, txosten- edo kontsulta-organoak, kontu-batzorde berezia, zinegotzi delegatuak. Talde politikoak.
13. Tokiko gobernu-organoen bilkuren eta erabakien araubidea. Aktak, ziurtagiriak, komunikazioak, jakinarazpenak eta erabakien argitalpena. Dokumentuen erregistroa.
14. Udal-eskumenak: zehazteko sistema. Eskumen propioak, partekatuak eta eskuordetuak. Gutxieneko zerbitzuak.
15. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako estatuko eta autonomia-erkidegoko legeria. Administrazio publikoetan eta hautaketa-prozesuetan aplikatzea.
16. Funtzio publikoa. Estatuko eta autonomia-erkidegoko esparru juridikoa.
16. Langileen plantilla, lanpostuen zerrenda. Lanpostuen zerrenden ezaugarriak.
17. Lan-eskaintza publikoa.
18. Enplegu-planak: ordenamendu juridikoa. Antolamendu-egiturak eta lanpostuak aldatzea. Giza baliabideen berresleipena eta mugikortasuna. Enplegu-plan batek eragindako langileen egoera.
19. Langileak hautatzea. Sarbide-sistemak. Printzipioak.
20. Funtzionario-izaera hartzea eta galtzea
21. Administrazio-karrera
22. artikulua. Administrazio publikoko lanpostuak betetzeko moduak. Lehiaketa eta izendapen askea. Zerbitzu-eginkizunak.
23. artikulua. Funtzionario publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide-kodea.
26. Ordainsariak eta ekonomia-izaerako beste eskubide batzuk.
27. artikulua. Toki-administrazioko funtzionario publikoen bateraezintasunak.
28. Administrazio-egoerak.
29. artikulua. Funtzionarioen diziplina-araubidea. Diziplina-prozedura.
30. Enplegatu publiko motak eta horien araubide juridikoa.
31. Karrerako funtzionarioak. Eskala eta azpieskaletan sailkatzea.
32. Bitarteko langileak. Lan-kontratuko langileak eta behin-behineko langileak. Motak.
33. Hizkuntza-normalizazioa euskal herri-administrazioetako hautaketa-prozesuetan.
34. Negoziazio kolektiboa, ordezkaritza eta parte-hartze instituzionala.
35. Hautaketa-prozedurak bete beharreko oinarrizko arauak eta gutxieneko programak.
36. Estatuko Administrazio Orokorreko langileen sarrerari eta lanpostuak betetzeari



TOLOSAKO
UDALA

buruzko Erregelamendu Orokorra. Deialdiak eta hautaketa-prozedura. Lan-kontratuko langileak hautatzea. Barne-sustapena.

37. Hautaketa-epaimahaietako diskrezionalitate teknikoaren eta arbitrariotasunaren kontzeptuak eta jurisprudentzia.

38. Aldi baterako enplegua finkatzeko eta egonkortzeko prozesuak. Jarduteko arauak.

39. Birjartze-tasa. Kontzeptua eta mugak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean.

40. Gizarte Segurantza: Gizarte Segurantzaren Sistemaren egitura. Afiliazioa, altak, bajak, kotizazioa. Kontingentziak.

41. Datu pertsonalen babesa: datuen babesaren printzipio orokorrak eta aplikazio-eremua.

42. artikulua. Hautaketa-prozesuetan datu pertsonalak babesteko pertsonak dituzten eskubideak.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021PDLO0001-Oinarriak euskeraz/Bases en euskera (TOLOSAKO UDALA)